

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

52 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

ale berezia

Catalunya:
askatasun nazionala
eta sozialismoa

Programa iraultzaile
eta internazionalista
Catalunyarentzat



Catalunya: askatasun nazionala eta sozialismoa

Azken urte hauetan Catalunyako auzi nazionala egoera politikoko lehen lerroan kokatu da. Hau ez da kasualitatea. Mundu mailako eta, bereziki, Estatu espainiarreko kapitalismoaren krisi ekonomiko, politiko eta sozialak zuzen-zuzenean jo dute Catalunyako auzi nazionala. 30eko eta 70eko hamarkadetan gertatu bezala (hauek ere inflexio historikoaren garaiak izan ziren), auzi nazionala areagotu egin da klase borrokaren gorakadarekin batera.

Auzi nazionala beti egon da burgesiaren eta langile klasearen borrokaren erdian. Alde batetik, nazio zapaltzaileko burgesiak (espainiarra, frantziarra...) eta nazio zapalduetako burgesiak (kataluniarra, euskal herriarra...) beren klaseko dominazioa mantentzeko erabiltzen dute. Bestetik, zapalduak, langile klaseak, kapa ertainetako pobretuenek eta gazteriak aukera dute zapalkuntza nazionalaren aurkako borroka sistema kapitalistaren aur-

kako borrokarekin lotzeko. Marxismoaren ikuspuntutik, horrela bakarrik defenda daiteke nazio zapalduen eta gehiengo sozialaren askatasuna.

Eskubide demokratiko nazionalen defentsa gizartearen eraldaketarekin lotzea da bide bakarra. Horretarako beharrezkoa da programa eta estrategia iraultzaile, sozialista eta internazionalista defendatzea. Funtsezkoa da zapalkuntza nazionalaren aurkako borroka bankuen eta monopolio

handien diktaduraren aurkako palanka izatea, sistema kapitalista baita izurrite honen, lapurreta inperialistaren eta eskubide demokratiko nazionalen ukazioaren arduraduna.

"AKELARRE" ESPAÑOLISTAREN AZKEN HAMAR URTEAK

Aznarren bigarren legegintzaldi garaitik, eskuin espagnolistaren erasoaldia nabarmen handitu zen Catalunyako eskubide demokratikoen aurka. PPren, eskuinaren komunikabideen eta Estatu aparatuen (militarrak, poliziak, epaileak...) probokazioak etengabekoak eta oso larriak izan dira.

Erasoaldi espagnolista indartzeko aitzakietako bat Estatut kataluniarraren erreforma izan zen. Erreforma hau 2004an bultzatu zuen PSC, ERC eta ICVk osatutako Tripartitak. Estatutaren eztabaidak ez zuen ilusio gehiegi sortu herri kataluniarraren gehiengoarengan, ez baitzuen benetako au-





rrerapausorik ekartzen, ez esku-bide demokratikoetan ezta esku-bide sozialetan ere. Gainera, hasierako zirriborroko erreferentzia aurrerakoienak kendu zituzten CiUk onartu ahal izateko. PPk Estatutaren aurka antolatutako frankismo estiloko kanpaina anti-kataluniarra izan zen herritarrak Estatuta defendatzera bultzatu zituen.

2005ean Estatuta onartu zen Parlament kataluniarrean, 2006an kongresu espainiarrean eta ondoren Catalunyan egin zen erreferendumean %74ko babesarekin. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen 2010eko udako bere sententziarekin. Eraso honek haserre handia piztu zuen Catalunyako gizartean. Estatutaren hitzaurrean Catalunya nazioa zela aipatzen zuen erreferentziaz honakoa esan zuen Auzitegi Konstituzionalaren sententziak: “Konstituzioak nazio espainiarra bakarrik ezagutzen du”. Honekin batera, hamabi aldiz gogorazten zuen epaiak “nazio espainiarraren batasun zatiezina”. Auzitegi Konstituzionaleko epaile gehienek mezua argia zen: bost axola zaizkigu zuen iritziak eta

erabakiak, Francorekin edo Franco gabe, hemen betikoek agintzen dugu. Erabaki honi erantzunez, manifestazio jendetsu bat egin zen Bartzelonan 2010eko uztailaren 10ean “som una nació, nosaltres decidim” (‘Nazio bat gara, guk erabakitzen dugu’) lelopean.

KATALUNIERAREN AURKAKO GORROTOA

Auzi linguistikoari sdagokionez, 2010eko abenduan Auzitegi Gorenak hiru sententzia diktatu zi-

tuen hezkuntza sistema kataluniarreko murgiltze linguistikoa-ren aurka. Eraso honi LOMCE etorri zitzaion ondoren, Wert Hezkuntza Ministroak esan zuen moduan “ikasle kataluniarrek espagnolizatzeko” helburuarekin.

PPren kanpaina frankistaren oinarrietako bat Katalunian gaztelarak “sufritzen omen duen jazarpena” astintzea izan da. Honek ez du zerikusirik errealitatearekin. Catalunyan, gaztelaren ezagutza, estatu mailako bataz bestekoa baino altuagoa da. Catalunyan bi hizkuntzak naturaltasun osoz erabiltzen dira, eta oso ohikoak dira elkarrizketa elebidunak ere. Eredu askotan, gainera, gaztelaren presentzia handiagoa da: zinean, interneten, argitalpenetan edo mota guztietako liburu teknikoetan. Eskuin espainiarrak auzi linguistiko bere oinarri soziala indartzeko eta zabaltzeko erabili nahi du zatiketa eta gorroto nazionala bultzatuz.

Eskuin espainiarrak jarrera anker eta atzerakoia du katalunierarekiko bai Catalunyan eta baita hemendik kanpo ere. PPk kontrolatzen dituen instituzioek ez dute onartu nahi valentziera, mallorkera eta kataluniera hizkuntza bera direla. Aragoi, PPren eta Partido Aragonestaren gobernuak 2013an kataluniera hitza



ezabatu zuen ofizialki. Aragoi-ko Franjan biztanleen %75ak hitz egiten du kataluniera. Honen orde, hizkuntza honi izen lotsagarri bat jarri zioten: LA-PAO (Lengua Aragonesa Propia del Área Oriental). Valentzian, Fabraren gobernuak *Diccionari Normatiu Valencià* argitalpena geldiarazi zuen. Acadèmia Valenciana de la Llengua urte askotan egindako lan eta ikerketen ondoren egindako argitalpen honek honela definitzen zuen valentziera: “la lengua románica hablada en la Comunidad Valenciana, así como en Cataluña, las Islas Baleares, el departamento francés de los Pirineos Orientales, el Principado de Andorra, la franja oriental de Aragón y la ciudad sarda de l’Alguer, lugares donde recibe el nombre de catalán”. PP valentziarraren ustez, definizio hau ez zen egokia Autonomia Estatutuan, eta horregatik ezabatu egin zuten. Balear Irletako PPre gobernuak, hezkuntza sistema balearretik kataluniera kentzeaz gain, antikatalanismoa erabiltzen saiatu zen eraso horren aurka greba mugagabea antolatu zuten irakasleen aurka. “Ley de Simbolos” delakoa onartu zuen, eta honen ondorioz, besteak beste, 10.000 euro arteko isunak jartzen zaizkio ikastetxeetan edo eraikin publikoetan bandera kataluniarra jartzen duenari.

MEHATXU SEPARATISTA ETA EJERTZITOA

Herri kataluniarraren sentimendu nazionalen aurkako eskuinaren eta Estatu aparatuko sektoreen erasoaldia ez da anekdota isolatu bat izan. 2011ko Diada baino egun batzuk lehenago Francisco Alaman koronelak argi utzi zuen Catalunyaren independentziari buruzko bere iritzia: “por encima de mi cadáver y el de muchos (...) aunque el león parezca dormido,



The screenshot shows the website 'ad alerta digital' with the URL 'www.alertadigital.com'. The date is 'Viernes, 31 de agosto de 2012'. The navigation bar includes 'PORTADA', 'ESPAÑA', 'INTERNACIONAL', 'ECONOMÍA', 'CULTURA', 'HISTORIA', 'IBEROAMÉRICA', 'SALUD', 'CORRUPTOLANDIA', and 'NOTICIAS'. The main article is titled 'Francisco Alaman, coronel del Ejército español: “¿La independencia de Cataluña? Por encima de mi cadáver”'. It features a photo of Francisco Alaman and a quote: “Preocupación e indignación”. Así resume el coronel Francisco Alaman Castro el estado de ánimo de muchos mandos militares españoles ante el desafío de los nacionalistas radicales catalanes a la unidad de España. A pecho descubierto, como en él ya es costumbre, el coronel Alaman señala rotundo que los independentistas catalanes, para consumar su obra rupturista, “deberán pasar por encima de mi cadáver y el de otros muchos militares” con apego al honor, a la Historia de España y al juramento realizado para mantenerla siempre unida.

que no provoquen demasiado al león, porque ya ha dado pruebas sobradas de su ferocidad a lo largo de los siglos”. Adierazpen hauek oihartzun handia izan zuten Catalunyan. Koronel honen hitzek erakusten dute Estatu aparatuko sektore batzuen benetako jarrera: nazionalismo espainiar atzerakoienarekin zikinduta daude.

Alaman koronelak adierazpen horiek egin eta bi astera, AMEk (Asociación de Militares Españoles: 3.500 militar biltzen ditu) botere judizialari eta gobernu espainiarrari neurriak hartzeko eskatu zion. Hauen hitzetan beharrezkoak ziren “las medidas oportunas para suprimir cualquier atisbo de secesión”. AMEren mehatxua haratago zihoan: “si el ejército tuviera que tomar cartas en el asunto no habría la menor duda de que quienes hayan permitido, participado o colaborado en la amenaza de fractura de España habrán de responder de alta traición ante los tribunales en el ámbito de la jurisdicción castrense”. Pedro Pitarch teniente jeneralak berriz mehatxu hauek bota zituen 2014ko martxoan argitaratutako artikulu batean: “el perverso espíritu que animó el intento de golpe del 23F pa-

rece seguir latiendo y aflora a la menor ocasión (...) hay militares en activo y retirados que tratan de inocular y fomentar un estado de opinión a favor de una intervención militar en Catalunya”. Adierazpen hauen guztien arduradunek ez dute inolako zigorrik jaso. Hau ikusita, nork esan dezake ejertzittoa, epaila eta Estatuaren gainerako instituzioak ez daudela atzerakoiez eta faxistez beteta? Zein motatako “demokrazia” dago erregimen politiko espainiarraren goi mailako eremuetan?

Beste hainbat “demokraten” hitzak ere ez dira atzean geratu. Kataluniako PPko bozemailea izan zen Aleix Vidal-

Quadrask Guardia Civilaren interbentzioa eskatu zuen publikoki eta UPDko Rosa Diezek Generalitate bera deuseztatzea eskatu du behin baino gehiagotan. Gizarte Zientzien Principe de Asturias saria jaso zuen Juan Velarde ekonomistak, berriz, ondorengoa esan zuen 2013an Telemadriden egin zioten elkarrizketa batean: “Azaña consideraba conveniente bombardear Catalunya cada 50 años”. Auzitegi Konstituzionaleko presidente eta PPko militante den Francisco Pérez de los Cobosek onanista, pesetero eta indibidualista deitu zien kataluniarrei 2006ko ekainean argitaratu zuen *Parva Memoria* liburuan. Horrelako adibideek orrialdeak eta orrialdeak beteko lituzkete.

CEOE patronal espainiarraren eskuetan dagoen *Instituto de Estudios Economicos*-en informe baten arabera, neurri hauek hartu beharko lirake Catalunyako erreferenduma konbokatuko balitz: “nos adentraríamos en una situación de conflicto abierto que inevitablemente acarrearía la suspensión del Estatuto de Autonomía de Cataluña, la destitución del Gobierno catalán y el cierre de su Parlamento y la restricción de

algunos derechos constitucionales como es normal en estas situaciones extraordinarias (...) abortada la secesión, encarcelados sus líderes e ilegalizados los partidos políticos que la apoyaron, se abriría un período transitorio durante el cual el Estatut quedaría en suspenso y las competencias transferidas volverían a manos del Gobierno”.

NAZIONALISMO ESPAINIARRA: ORAINDIK GAURKOTASUNA DUEN TRADIZIO ATZERA KOIA

Autodeterminazio eskubidearen aurkako errepresioa, ejertzitoaren interbentzio mehatxua edo autonomia kataluniarra ezabatzea ez dira herri kataluniarraren, euskal herritarren eta galiziarren eskubide demokratikoentzako arazoa bakarrik, baizik eta zuzen zuzenean mehatxatzen dituzte langile klasea eta gazteria ere, eta, noski, baita estatu espainiarreko biztanleriaren gehiengoa bera ere.

Eskuin “demokratiko” espainiarrak bere burua “antinazionalista” bezala aurkeztu arren, nazionalismo atzerakoienaren eta

zapaltzaileenaren ordezkaria da errealitatean. Nazionalismo hau tradizio historikoaren zati da, eta ondo dator burgesiaren helburu politikoetarako. Catalunyaren, Euskal Herriaren eta Galizaren eskubide demokratikoen aurkako aurreiritziak bultzatzen dituzte; langileak kriminalizatzen dituzte greba egiteagatik; mugimendu sozialak erreprimitzen dituzte murrizketen, etxe-kaleratzeen eta herstura planen aurka manifestatzeagatik; irakaskuntzako kontrarreforma frankista (LOMCE) aplikatzen dute...; hau dena, lorpen sozialen eta askatasun demokratikoen aurkako erasoaldi berran sartzen da. Langile klasea lehen nazionaletan zatitzea eta PPrein oinarri sozialaren (ultraeskuindarrak barne) histeria egoera mantentzea dute helburu, eta, aldi berean, neurri errepresiboak justifikatuko dituen klima sortu beren politiken aurkako mobilizazio masiboak gerarazteko.

Eskuin espainolista, frankismoaren eta diktadura erori zenetik depuratu ez den makinaria errepresiboaren oinordekoa da. Ez zen kasualitatea izan, noski, frankismoak nazio zapalduetan antolatu-

tako errepresioa. Eskuin espainolista ez da konponbidearen zati bat, arazo guztien oinarritzko arduraduna da, eta hemen sartzen dira auzi nazionalarekin eta eskubide demokratikoekin erlazioa dutenak ere.

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA BAI, CIUREN ESKUTIK JOATEARI EZ. ARTUR MASEN ETA BERE AITA POLITIKOA IZAN DEN JORDI PUJOLEN “ESTATU PROPIOA”

Zalantzarik gabe, beharrezkoa da zapalkuntza nazional ororen aurka lerratzea, eta horretarako beharrezkoa da Catalunyaren, Euskal Herriaren eta Galizaren autodeterminazio eskubidea defendatzea. Baina honek ez du esan nahi beharrezkoa denik langile klase kataluniarra, euskal herritarra edo galiziarra eta honen erakunde sindikalak eta politikoak, aktiboki edo pasiboki, nazio zapalduetako burgesiaren interes eta helburuen eskutik joatea. Burgesia espainiarrak bezala, burgesia kataluniarrak eta euskal herritarrek beren gidoi propioa dute auzi nazionalerako. Sentimendu nazional zintzoak erabiltzen dituzte herritarrek engainatzeko eta manipulatzeko, eta, horrela, beren klaseko interesak defendatzen jarraitzeko.

Horregatik, funtsezkoa da bereiztea burgesia kataluniarraren nazionalismo berekoi eta atzerakoia eta Catalunyako herritarren gehiengo handi baten nazionalismoa. Burgesia kataluniarrak ez du inolako arazorik izan behin eta berriro burgesia espainiarrarekin mota guztietako akordioak egiteko eta herri kataluniarraren eskubide demokratikoak erasotzeko. Beharrezkoa da gogoratzea burgesia kataluniarra frankismoaren defendatzailea izan zela. Herri kataluniarraren sektore handi baten nazionalismoa, berriz, zapalkuntza nazionalaren aurkako eta





justizia sozialaren aldeko jarreraren isla da. Gaur egungo eztabaidan, oinarritzkoa iruditzen zaigu bereizketa hau egitea.

Zein motatako Estatu defen-datzen dute burgesia kataluniarrak eta Artur Masek? Zein abantaila izango lituzke Estatu horrek eskubide demokratiko eta soziale-tan? CiUk dioenez, “Estatu propio” kapitalistari esker, Catalunyak aurre egingo lioke Ongizate Estatuaren gainbeherari, eta aukera gehiago izango luke krisitik irteteko. CiUren arabera, “espolio fiskalarekin” amaitzea da gakoa. Jordi Evole kazetariak Artur Masi egin zion elkarrizketan nahiko garbi geratu zen nolakoa izango litzatekeen “Estatu propio” kapitalista kataluniarra. Artur Masek esan zuenez, ez lirateke atzera botako ez lan erreforma, ez pentsio erreforma, ezta osasuneko murrizketak ere. Politika ekonomikoak kapital finantzario alemaniarren eta frantziarren menpe jarraituko lukeela onartu zuen Artur Masek. Maila militarrean, Catalunya defendatzeko, dagoeneko existitzen diren ejertzitoak erabiltzearen alde agertu zen. Poliziari dagokionez berriz, dagoeneko ezagutzen dugu nolakoak diren Mossos d’Es-

quadrak, espediente errepresibo anker “bikaina” dute. CDCk (Convergència Democràtica de Catalunya) 2014ko martxoan ospatutako batzarrean etorkizuneko Catalunya “independente” horren Estatu ereduaren oinarriak onartu ziren: zerga gutxiago enpresentzat, laguntza sozial gutxiago (egoera ekonomiko berrira egokitze) eta osasunaren eta hezkuntzaren pribatizazio gehiago. Onartu zen dokumentuan lotsarik gabe defendatzen da osasunaren kopagoa: “junto con el principio de universalidad también se tiene que tener en cuenta la corresponsabilidad o cofinanciación de los recursos, dependiendo de la capacidad económica de cada uno”.

Artur Masek izendatutako aholkulariez osatutako Trantsizio Nazionalerako Kontseiluak Estatu kataluniarrak Estatu espainiarrarekin gauza batzuetan batasuna izaten jarraitu beharko lukeela aholkatu dute: “cooperación en varios ámbitos: monetario, industrial, fiscal, cultural, infraestructuras, defensa, migraciones...”. Erakunde honek Barcelona eta Espainia futbol taldeek liga espainiarrean jokatzen jarraitzea aholkatzen dute, eta Estatu espainiarrarekin di-

tuzten harremanak, berdintasunean oinarrituta, “gaur egungoak baino sendoagoak izatea”. Hau bai independentzia xelebrea! Artur Masen proiektu “independentista” ordezkatzeko dituen botere ekonomiko handien zerbitzura egina dago: kapital kataluniarra, espainiarra eta europarra.

Artur Masek gustuko duen “estatu propioaren” eredua ezagutze-ko, ez da ahaztu behar agintari honek Israelgo Estatuari dion begikotasuna. “Herri kataluniarraren askatzaile” honek eredu bezala jartzen du okupazioan, errepresio indiskriminatuan, bonbardaketetan, milaka presotan eta milioika errefuxiatutan oinarritzen den Estatu. 2013ko azaroan Israel bisitatu zuenean, enpresari talde batekin batera, bere hitzak hauek izan ziren: “la lucha de Israel por su supervivencia es un gran ejemplo a seguir”...“tenemos que aprender muchas cosas de Israel”.

CiUk, ezkutatu egin nahi duen arren, gainontzeko nazioekiko jarrera arrazista eta diskriminatzailerik du. Oso ezaguna izan zen Vico CiUko alkatearen jarrera, lan baimena ez zuten etorkinak errol-datzearen aurka azaldu zenean. Edo Duran i Lleidak andaluziarraren aurka egindako adierazpenak: “reciben el PER para ir al bar del pueblo”.

Jordi Pujol eta honen familiaren iruzur kasuak erakusten du ondo zein helburu dituzten CiUko agintariek “aberrri kataluniarrari” buruz hitz egiten dutenean: poltsikoa bete aurrekontu publiko-en kontura, hezkuntzara, osasunera edo laguntza sozialetara joan beharko lukeen diruaren kontura. Ukiezinezko faraoiak bezala bizi nahi dute Estatu espainiarreko, Estatu frantziarreko, AEBetako eta beste herrialde kapitalistetako burgesek bezala. Hau da burgesia kataluniarrak defendatzen duen nazio eredua, horrela izan da Cambotik hasita Pujol arte. Primo de Riveraren eta Francoren dikta-

durak babestu zituzten industrial kataluniarren oinordekoak diren La Caixako exekutiboek aberasten jarraitzen dute espekulazioari, etxekaleratzei eta PPK emandako estatut laguntzei esker. Hau al da Kataluniak behar duen proiektu nazionala? Hamarkadetan zehar herri kataluniarra zapaldu duten gutxiengoak gobernatutako nazioa da alternatiba?

Hori bai, funtsezkoa da gogoratzea Pujolen iruzur fiskal multimilioidunaren berri bazutela aspalditik burgesia espainiarrak, PPK eta PSOEk. Bi alderdi hauek agintarien iruzurrak eta ondasun pilaketak ez dira atzean geratu: Barcenasen, Acebesen, Granadosen... kasuak, Felipe Gonzalezen ondasuna, PSOEko ministro izandakoek multinazional handietako administrazio kontseilueta hartutako postuak... Pujolen negozio ilegalak isilpean geratu ziren, eta estatu sekretu bezala gorde ziren, Pujolen eta CiUren zerbitzu politikoak oso mesedegarriak zirelako burgesia kataluniarraren eta burgesia espainiarraren interes kolektiboentzat eta Estatu espainiarren gobernagarritasunarentzat. Ez zen kasualitatea izan ABC egunkariak Jordi Pujol 1986ko "urteko espainiar" izendatzea. Orain, burgesia espainiarrak eta estatu aparatuak, espediente guztiak ondo gordeta zituztenek, karta hau jokatzeko erabaki dute CiU presionatzeko eta hauekin ezkutuak dituzten negoziaketetan abantaila bilatzeko.

CIU INDEPENDENTISTA DA?

Zergatik joan da CiU "independentismorantz"? Galdera honi erantzuteko, labur izan arren, beharrezkoa da ezagutzea zein zen eskuin nazionalista kataluniarraren egoera biraketa hau eman baino lehen.

CiUk Generalitatea berreskuratu zuen 2010eko azaroan, PP gobernu espainiarrera iritsi baino

urte bete lehenago. Lehen unetik osasun eta hezkuntza publikoaren aurkako erasoaldi basatia jaurti zuen. Masen gobernu aitzindaria izan zen ebakuntza-gelak eta osasun zentroak ixten eta osasun kopagoa aplikatzen. Poliziaren errepresioa maila handiago batera eramane zuten: Mossos d'Esquadren errepresio basatia M15 mugimenduaren aurka; 2012ko martxoaren 29ko greba orokorreko manifestazioaren aurkako karga ankerra (74 atxilotu izan ziren Catalunya osoan); ekintza errepresibo berri bat 2012ko azaroaren 14ko greba orokorrean, non Ester Quintana gazteak begi bat galdu zuen Mossos d'Esquadrek botatako gomazko pilota batengatik; poliziaren infiltrazio sistematikoa manifestazioetan errepresioa justifikatzeko ekintzak antolatzeke; hiru hildako urte batean Mossoen "erredukzio" ekintzengatik... Europako Kontseiluak ere "tamalgarritzat" izendatu zuen egoera, Catalunyara egindako bisitaren ondoren ere atxilotuen tratatu txarren salaketek jarraitu egiten zutelako.

PPk bezala, CiUk manifestazioen eta ezkerreko taldeen aurkako kriminalizazio gogorra garatu zuen. Eskuin kataluniarra greba eta manifestazio eskubidea murriztearen alde dago, eta hala esan dute aukera izan duten bakoitzean. Murrizketak justifikatzeko,

CiUk ongizate estatua deitutakoaren aurkako demagogia osoa erabili zuen. Gogoratu besterik ez daude Osasuneko consellerra izan zen Boi Ruizen hitzak: "la salud es un bien privado que depende de uno mismo, y no del Estado". Osasun pribatuko patronal kataluniarreko buru izan zenean mutua pribatu batean sartzera gonbidatu zituen kataluniarrak. Bestetik, Esperanza Aguirrek Madrilen egin zuen moduan, Mas-Colell Ekonomia consellerra doako laguntza sozial unibertsalak bertan behera uztearen alde agertu zen.

2011ko hasieran, PP izan zen CiUren sozio nagusia Parlaamentean. Inoiz ez zen Catalunyan bien arteko kolaborazio politikoa hain agerikoa izan, jakinik gainera bertan PPren aurpegia aski ezaguna dela: atzerakoia eta espainolista. 2011ko maiatzeko udal hauteskundeen ondoren, aliantza hau indartu egin zen Bartzelonako alkate lortzeko PPK CiUri emandako babesagatik eta Badalonako alkate lortzeko CiUk PPri emandako laguntzagatik (Xavier Garcia Albiol arrazista ezaguna jarri zen alkate). Bien arteko kolaborazioa are gehiago handitu zen Rajoi gobernu espainiarrera iritsi zenean 2011ko azaroko hauteskundeetara esker. CiUk PPren eraso guztiak babestu ditu kongresu espainiarrean honek Catalunyan emandako ba-



besaren truke: lan erreforma, amnistia fiskala, aurrekontuen egonkortasun legea, murrizketak osasunean eta hezkuntzan. CiUk PPri egindako kritika bakarrak honen neurriak gogortzeko soilik izan ziren. CiUk, lan erreforma “sakonagoa” eta funtzionarioen soldata murrizketa altuagoa eskatu zituen besteak beste.

Catalunyan oso mobilizazio garrantzitsuak izan dira murrizketen eta erasoen aurka. Manifestazio jendetsuak osasuneko murrizketen aurka, M15aren mobilizazio handiak 2011n, 2012ko martxoaren 29an eta azaroaren 14n izandako greba orokorren jarraipen masiboa (bi egun hauetan milioi bat pertsona manifestatu ziren), etxekaleratzeen aurka antolatutako mobilizazioak, Sindicat d'Estudiantsek hezkuntzako murrizketen aurka antolatutako greba eta manifestazio garrantzitsuak... Masa mobilizazio hauek guztiak minimizatu egin zituzten Catalunya bertako eta kanpoko komunikabideek, baina mobilizazio hauetako parte hartzea auzi nazionalarekin zerikusia izan duten mobilizazioen adinakoa izan zen.

INDEPENDENTZIA? IKUSIKO DUGU, BAINA ORAINGOZ DUGUNA MURRIZKETAK DIRA

Protesta soziala eta instituzioen deslegitimazioa handitzen ari zirenean, CiUk “independentziaren” bandera ateratzea erabaki zuen gatazka soziala estaltzeko helburuarekin. Helburu honek arrakasta izateko, CiUko agintariek bi osagai zituzten: batetik, Catalunyako eskubide demokratiko nazionalen aurka antolatzen ari ziren erasoaldi espainolistaren kontrako jarrera masiboa herri kataluniarrean; eta, bestetik, aurrerago ikusiko dugun ezker politiko eta sindikaleko agintari erreformisten eta sozialdemokraten kolaborazioa.



2012ko martxoko CDCren kongresuak, urte hartako Diada masiboa baino lehenago, Catalunya-rentzat “estatu propioa” eraikitzea onartu zuen. Jordi Pujol, askoren harriidurarako, “independentismora” pasa zen, eta “Espainiarekin norgehiagoka handia” iragarri zuen. Herri kataluniarra “horrenbeste maite” duen “abertzale” honek ez zuen izan arazorik, ordea, hainbat hamarkadetan ehunka milioi euro Suitzara eta beste paradisu fiskal batzuetara eramateko. Dirutza hori Generalitatetik bere lagun enpresariei esleitutako kontratuetako komisiotatik ateratu zen. Horrela, 2012ko udaberrian bi helburu nagusi zituen mugimendu politikoa jarri zen martxan: CiUk Generalitatetik onartutako murrizketa sozialen politika basatiaren atentzioa desbideratzea eta burgesia espainiarrari erabaki politikoen boterean zati handiagoa eskatzea, batik bat aurrekontuetan eta eremu ekonomikoan.

Ordutik, CiUk egindako bidea mota guztietako azpijokoez beteta egon da. Hasieran, kontsulta legala izango zela edo gutxienez PPren Gobernuaren onespenearekin egingo zela esan zuen Artur Masek. Ondoren, kontsultaren deialdia ERCK 2014ko aurrekontuak onartzera baldintzatu zuen. Aurrekontu hauek murrizketa sozialak eta pribatizazioez beteta zeu-

den. CiU Generalitaterra iritsi denetik, biztanleko %22 jaitsi da gastu soziala, hamarkada bat atzeratuz. 2014ko aurrekontuak azken hiru urteetako murrizketa basatiaren kontsolidazioa ziren.

Murrizketen, langabeziaren eta soldata baxuen ondorioak ikaragarriak dira Catalunyan: 50.000 umek elikadura gabeziak dituzte eta osasun kataluniarrek 750 umeren malnutrizio kasu erregistratu ditu. Bartzelona probintzian, biztanleriaren %57ak zailtasunak ditu hilabetearen amaierara iristeko, eta %29,5 behartsuak dira. 16 urtetik beherako kataluniarren %26,4 pobrezia arriskuan dago, 2008an erregistratu zena baino 8,8 puntu gehiago.

2015erako ere CiUk, ERCren babesarekin, egoera honetan aurrekontu posible bakarrak hauek direla defendatzen jarraitu du. Batzuetan “Madrilgo inposizioez” kexatzen diren arren, gogoratu behar da beste behin CiU izan dela PPren aliatu nagusia pobrezia-aren areagotzea eragin duten murrizketa politiketan eta eskubideen galeran. Gogo biziz defendatu zituen CiUk PPren lan erreforma eta Aurrekontuen Egonkortasun Legea, gastu publikoaren gainetik bankari egin beharreko interes ordainketa lehenesten duena. Ez dugu CiUko agintaririk entzungo urtero 16.000 milioi eurotara iris-

ten den Catalunya-ko iruzur fiskalaren aurka. Dirutza hau osasunean, hezkuntzan eta ongizate sozialean gastatzen dena baino askoz gehiago da.

ERCren babesarekin CiUren politika soziala eta ekonomikoa aplikatzen diren bitartean, Artur Masen proiektu “independentistaren” etorkizuna burgesia espainiarrarekin ezkutuan egiten dituen akordioen arabera izango da, komeni denean haizea emanez eta komeni denean berriro ere desagerraraziz.

BEHARREZKOA DA CIUREN BENETAKO AURPEGIA AGERIAN UZTEA

Noski, CiUren maniobrek, herri kataluniarraren sentimendu demokratikoekin egiten duen erabilera demagogikoak eta bere interesak defendatzen jarraitzeko egin duen bira “independentistak” ez dute zerikusirik azken urte hauetan Catalunya-ko autodeterminazio eskubidearen alde masiboki mobilizatu direnen jarrera zintzoarekin. Catalunya-ko auzi nazionalak oinarri solido objektiboa eta lehen mailako garrantzia politikoa ditu.

“Aurrerakoi” batzuen ustez, CiU kritikatzeko herri kataluniarraren sentimenduak gutxiesten da. Hauentzat, CiUren maniobra salatzea, autodeterminazio eskubidearen aldeko mobilizazioak ukatzea da. Argudio hauek ez dute logikarik eta arriskutsuak dira politikoki, ezkerreko salbutea uzten dutelako eskuin nazionalistaren aurrean. Nazionalismo espainistaren aurkako posizioa eskubide demokratiko nazionalen aldeko jarrerarekin islatzen da, eta burgesia kataluniarrak egoera hau baliatu nahi du, ez herri kataluniarraren interesen alde, bazik eta bere klaseko interesen alde.

Kapitalista kataluniarren interesak ordezkatzen dituen CiU



“prozesu subiranistaren” buruan egoteak ez du garrantzirik? CiU ez da saiatzen prozesu honen faseak zehazten? Nork erabaki zuen kontsultan galdera bikoitza egotea, independentziari buruzko galdera garbi bat jarri beharrean? Nork defendatu du autodeterminazio eskubideari buruzko galdera legearen barruan eta PPren babesarekin egin behar dela? Nork erabaki zuen azaroaren 9an “kontsulta” bat egitea eta ez erreferendum lotesle bat? Nor ari da PPren gobernuarekin negoziatzen (kasu askotan isilpean)? Hau dena ez al du CiUk inposatu? Garbi dago baietz!

AGINTARI SOZIALDEMOKRATEN PAPER LOTSAGARRIA

CiU ari da agenda markatzen gero eta ahulago, sinesgarritasun gutxiagorekin eta barne krisiarekin egon arren. Nola da posible baldintza hauetan CiU “prozesuaren” buru izatea? Honen erantzuna, ezkerreko alderdietako eta sindikatu- eta agintarien programa eta estrategia sozialdemokrata eta erreformista da. Hau da oinarritzeko puntu zentrala.

Gogoratu behar da auzi nazional kataluniarreko tentsioak ez

direla izan beti CiUren mesedera-ko. PPren erasoaldi espainista eta antilangilearen ondorioz, 2003an Catalunya-ko egindako hauteskundeek ezkerreko bira bira. 22 urte ondoren, CiUk gobernu-aldia galdu zuen. Hala ere, PSCK, ERCk eta ICV-ko osatutako gobernuak (Tripartita bezala ezagutu zenak) ez zuen gizartearen ezkerreko bira baliatu politika sozialen eta eskubide demokratikoen defentsan aldaketa erradikal bat egiteko. Politika kontinuitate bat izan zen, eta ez zen eskuinaren neurrietatik bereizi: zerbitzu publikoen pribatizazioa, multinazionalen kaleratzeen onarpena hauek ikeragarrizko diru laguntza publikoak jaso arren, ikasle mugimenduen aurkako errepresioa...

Tripartitaren neurri zentralitateko bat Kataluniako Hezkuntza Legearen onarpena izan zen. Hezkuntza publikoa pribatizatze-ko gidaliburua zen, eta, gainera, patronalaren eta CiUren babes osoa izan zuen. Neurri honen aurka, hezkuntza komunitateak lau greba orokor arrakastatsu antolatatu arren Tripartitak aurrera jarraitu zuen. Zapateroren gobernuak langile publikoen soldaten %5eko murrizketa iragarri zuenean Tripartitak murrizketa handiagoak zituen plana aurkeztu



zuen. Honek, Kataluniako 260 enpresa publiko eta semipublikori eragin zien.

2010ean CiU Generalitatera itzuli zen. Ez zen izan bere indarrari esker, zazpi urtetako gobernuaren ondoren Tripartitaren politika lotsagarriak eragindako ezkerreko boto-emileen abstentzioari eta desmobiliazioari esker baikik. Oposiziora pasa zirenean, PSC eta ICVko zuzendaritzek politika segidista lotsagarria hartu zuten. Hitzek murrizketen aurka egon arren, eskua luzatu zioten CiUri, “fronte bateratua” eginez akordio fiskalaren auzian eta beste hainbat neurritan. Honi esker, “kanpoko inposizio” bezala aurkeztu zituen CiUk murrizketak. 2012ko uztailaren 25ean akordio fiskalaren proposamena onartu zen CiU, ERC, ICV eta Joan Laportaren taldearen babesarekin.

Bitartean, Catalunyako CCOO eta UGTko zuzendaritzek taktika desmobilitatzailea mantendu zuten. CCOO eta UGTko aparatuek akordio bat sinatu zuten Foment de Treball patronal kataluniarrekin “ekonomia produktiboa bultzatzeko”. Aldi berean, Generalitatearen murrizketa basatien eta langileen aurkako patronalaren erasoaldiaren aurrean beste aldera begiratu zuten. 2013ko Metaleko greba orokorra bertan behera utzi zuten, patronala hitzar-

menen aurka antolatzen ari zen erasoaren aurkako erantzuna saboteatuz. Honen ondorioz, adibidez, greba mugagabeen zeuden Panricoko langileak salduta utzi zituzten. Krisia, erasoak, murrizketak... ikaragarriak izan arren, CCOO eta UGTko zuzendaritzek ez dute mobilizazio eraginkor eta bateraturik antolatu Catalunyan 2012ko azaroaren 14ko greba orokorretik.

2012ko azaroaren 25eko hauteskundeetan burgesia kataluniarra eta CiUk kolpe gogorra jaso ondoren, lehenago esan dugun bezala, Artur Masek baldintza bat jarri zion “etorkizuneko Catalunyar” buruz kontsulta (edukietan zehaztugabea zena) deitzeari: ERCK CiUren murrizketa sozialaren politika babestea (neurri hauek bai zirela zehatzak). Maniobra oso garbia izan zen eta ERCKo agintariak onartu egin zuten, eskuinaren politika antisozialaren konplize bihurtuz.

PSC, desegite usaina duen krisi larrian sartuta, joko kanpo geratu da. Bere agintariak, PPren espagnolismo atzerakoari jarraitzen diote edo CiUrekin negargarriak diren aliantzak akordatzan dituzte, Tarragonako joko eta prostituzioaren makrokonplexuaren kasuan bezala. Eraldaketa sozialaren alternatiba txikiarik gabe, burgesia baten edo bestearen,

CiUren edo PPren, txotxongilo besterik ez dira. Nahiz eta PSOE PPTik bereizten saiatu bere “federalismoarekin”, Pedro Sanchez idazkari nagusi berria autodeterminazio eskubidearen aurka posizionatzen da (lehen Rubalcaba bezala). Sanchez eta Rajoik “lerro gorri berberak” defendatzen dituzte auzi nazionalen.

Bere politika aurrera eramateko ERCKo agintariak ezkerreko hanka eskaintzen dioten arren, CiUk zailtasunak ditu gobernatzeko. Egiten dutena egiten dutela ere, burgesiaren alderdiek, edo praktikan politika kapitalista sostengatzen dutenek, zailtasun handiekin gobernatuko dute ezegonkortasunez betetako garai historiko honetan. Gizartearen polarizazioa, mobilizazio sozialak, krisi ekonomiko eta sozial sakona, iraultza eta kontrairaultza, dira bizi dugu eskenatokiaren ezaugarriak.

INDEPENDENTZIA “DENA ALDATZEKO” CIUREKIN ITUNA EGINDA?

CiUrekin kolaboratzea eta klase arteko borroka independentzia lortu arte “atzeratzea” ez da alternatiba egokia. ERC, ICV eta CUPeko zuzendaritzek CiUri emandako babesak eta luzatutako eskuak izen bat du: klaseko kolaborazio politika. Noski, burgesiaren ordezkariak behin eta berrir erabiltzen dute kolaborazioa hau: “denok itsasontzi berean gaude garai historiko honetan, demokrazia kristauetatik hasita antikapitalistak arte”.

2012ko azaroko hauteskundeetan CUPek emaitza onak lortu zituen, Parlamentean hiru diputatu eskuratuz. Gizarteko sektore garrantzitsu baten, eta bereziki gazteen, aldaketa borondatea islatzen zuten emaitza hauek. Hauen ustez, independentzia eraldaketa soziala gauzatzeko aukera da, kapitalismoarekin bukatzeko bidea. CUPek zabaldutako “Indepen-

dentzia dena aldatzeko” lemak erakusten du honen oinarri sozialaren eta militantziaren jarrera.

Zoritxarrez ordea, CUPeko agintari nagusiek CiUekin batera oso urrutira iristeko prestutasuna agertu dute. Horren adierazgarri dira CUPeko David Fernandezek egindako adierazpen publikoak: “prest gaude batasun nazionaleko gobernua osatzeko”, “Artur Masen lana defendatu behar da”, “gizon hau herri honen gehiengo sozialaren borondatea kudeatzen ari da”, “gure gizartean eskuin zibilizatuak egindako lana errekonozitu behar da”, “zerbait larria gertatzen ari da Catalunyan neoliberalak eta antikapitalistak ados egoteko, patronala eta sindikatuak ados egoteko, Mossos d’Esquadren kolpeak jasotzen dituztenak eta polizia hau zuzentzen dutenak ados egoteko”. Benetan larria dena CUPeko agintariak horrelako astakeriak esatea da.

Klaseko borrokaren esperientzia historikoak erakusten du ez dela posible burgesiarekin eta bere alderdiekin kolaboratzea eta akordioak bilatzea, eta, aldi berean, murrizketen eta sistema kapitalistaren aurkako borroka kontsekuentea antolatzea. Oso arriskutsua litzateke CUPeko zuzendaritzak ERCk hartutako bidea hartzea. ERCko Luis Salvadok bere hitzean argi utzi zuen alderdi honen hautua: “tengo muy claro que éste no es el momento de frentes de izquierdas, es el momento de armar el hombro para conseguir la independencia de nuestro país y trabajar en la unidad y la coordinación del máximo número de formaciones de izquierdas, de centro, de derechas, de cualquier ámbito ideológico, para trabajar para el 9N y para conseguir que Catalunya obtenga su independencia (...) si estamos en pleno proceso de conseguir la independencia, priorizaremos de forma muy clara el eje nacional y la suma transversal para conseguir la independencia,



en forma de candidaturas o de pactos a posteriori”. Alfred Bosch Madrilgo kongresuko ERCko bozeramailea, berriz, CiUko burua lausengatzera iritsi zen: “Mas es imprescindible”.

“ETAPISMOAREN” ONDORIOAK, TRANSIZIOKO ESPERIENTZIA

Trantsizioa bezala ezagututako garai haietan, PSOE eta PCEko agintariak akordiora iritsi ziren eskuin frankistaren ordezkariak. Aurpegia garbitu nahi izan zioten sistemari, boterea betikoen eskuetan geratzeko (oligarkia finantzarioa, industrial eta terrateniente). Horrela 70eko hamarkadan garatzen ari zen iraultza soziala bertan behera uztea lortu zuten. Gogoratu behar da gainera, garai haietan CiUren ordezkariak oso paper aktiboa jokatu zutela Trantsizioa “bideratzeko” eta diktaduratik zetorren aparatu errepresioa inolako depuraziorik gabe mantentzeko. Orain, oligarkia kataluniarraren ordezkari berberekin “hautsiko” da Trantsizioko erregimena? Langile klasea eta gazte mugimendua erreprimitu dutenekin? PPren neurri antide-mokratikoak eta antisozialak babestu dituztenekin egingo zaio aurre Estatu espainiarrari?

70eko hamarkadan, PSOEko Felipe Gonzalez eta PCEko Santiago Carrillo akordiora iritsi ziren Suarez eta Fraga frankistekin. PSOEko eta PCEko agintariak zerbait taktikoa bezala aurkeztu zituzten akordio hauek, “demokrazia kontsolidatzeko” omen ziren. Hori bai, sozialismoaren aldeko borroka etorkizunerako uztea proposatu zuten. Gaur, ERC eta CUPeko zuzendaritzek ere zerbait taktikoa bezala aurkeztzen dituzte CiUekin egindako akordioak. Diotenez, beharrezko akordioak dira “gaur egungo etapan” herri kataluniarraren “eskubide demokratikoak” defendatzeko eta independentzia lortzeko, eta etorkizunean ikusiko dugu nolako izaera izango duen Estatuak. Ikuspegi etapista honen arabera, lehendabizi burgesia kataluniarraren menpeko Estatu kapitalista kataluniarra sortuko da, eta, ondoren, iritsiko da sozialismo-rantz joateko garaia. Historiak erakutsi du, ordea, nolako ondorioak izan dituzten ikuspegi etapista hau hartu duten ezkerreko erakundeek: sistema kapitalistara egokitu izan dira eta langileen eta gazteriaren aurrean autoritatea galtzen joan dira.

Batzuen ustez, burgesia kataluniarrarekin fronte bat osatzearen arrazoia auzi demokratikoari lotuta dago, eta esaten dute akor-



dio honek ez duela oztopatzen CiUren aurkako posizioa auzi sozialean eta ekonomikoan. Baina banaketa hau egitea ezinezkoa da. Beharrezkoa da gauzak argi eta garbi esatea: CiU ez dago autodeterminazio eskubidearen alde. Eskubide honen alde daudela esaten dute, baina ez honen alde borrokatzeko, herri kataluniarra engainatzeko eta Estatu espainiarren laguntzarekin honen kontrako neurriak hartzen jarraitzeko baizik.

ERC eta CUPeko diputatuek hitz egin dezakete aberatsen eta murrizketen aurka, baina herri kataluniarra krisiaren eta eraso antidemokratiko eta antisozialen ondorioz sufritzen ari den egoerari aurre egiteko oinarritzko taktika CiUrekin aliantza bat egitea bada, zabaltzen den mezua akordio honi lehentasuna ematea eta CiUren aurkako borroka soziala bigarren maila batean uztea da.

MARXISMOA ETA AUZI NAZIONALA

Auzi nazionalari buruzko posizio iraultzaillea izateko funtsezkoa da teoria marxistan oinarritzea.

Gaiari buruzko testu garrantzitsuenak Leninenak dira, 1913 eta 1916 artean idatzitakoak. Hain justu, sistema kapitalistaren krisi orokorraren garaiak ziren, auzi nazionala pil-pilean zegoen eta langile mugimenduaren indarra gorantz zihoan. Lehen Mundu Gerraren ataria zen.

Leninen idatzien helburua auzi nazionalaren eta klase borrokaren arteko harremanari buruzko marxismoaren oinarri teorikoak, metodologikoak eta programatikoak finkatzea izan zen. Gazte eta langile klaseko iraultzaillei alternatiba eskaini zitzaion gaiari buruz. Horren ondorioz, gaur egun Catalan, Euskal Herrian edo Galizian gertatzen ari denari buruzko idatziak direla ematen du. Zalantzarik gabe, zapalkuntza nazionalaren aurkako borroka kontsekuentetik gabe ez zitzatekeen posible izango 1917ko Errusiako iraultzak garaipena lortzea.

Errusiako inperio tsarista zapalkuntza nazionalan oinarritzen zen. Leninek esaten zuen moduan, Errusia nazioen kartzela zen. Inperioko biztanleriaren gehiengoa errusiarra ez izan arren (ukraniarrak, poloniarak, finlan-

diarrak, lituaniarrak, letoniarak, judutarrak, musulmanak, tartarok, Kaukasoko herriak...), errusiara inposatzen zen ikastetxeetan, ejertzitoan eta, nola ez, administrazio osoan. Eliza ortodoxoak bermatzen zuen errusifikazioa tsarismoaren “polizia espirituala-rena” eginez.

1914ko gerrate inperialistako Errusiaren parte hartzearekin are gehiago gogortu zen zapalkuntza nazionala: nazio zapalduetako eskubide demokratikoen aurkako errepresioa zabaltzen zen, ekintzaileak atxilotu eta erailtzen ziren, herri osoak kanporatzen ziren beren bizitokitik, erabat debekatu ziren prentsa nazionalak... Baldintza hauetan, tsarismoaren erorketarekin eta iraultzarekin, nazio zapalduetako aldarrikapen demokratiko nazionalak lehen leerroan jarri ziren gainontzeko eskaera demokratiko eta sozialekin batera. Prozesu hau ikusi zen 1905eko iraultzan eta berriro eman zen 1917an.

Leninen ustez, beharrezkoa zen autodeterminazio eskubidea programa sozialista iraultzaillearekin lotzea, eta honekin batera oinarritzkoa zen nazionalismo burgesarren benetako aurpegia agerian uztea eta honen aurka borrokatzea. Zapalkuntza nazionalaren aurrean beste aldera begiratzea nazio zapaltzaileko burgesiari jorkoa egitea den bezala, akats larria da ere eskubide demokratiko nazionalen aldeko bandera nazio zapalduko burgesiari eskaintzea. Leninentzat, autodeterminazio eskubidearen aldeko defentsak heziketa eginkizuna zuen, nazio zapaltzaileko langile eta nekazari-entzat bereziki, kasu honetan Errusiakoentzat: “¿Puede acaso ser libre un pueblo que oprime a otros pueblos? No. Los intereses de la libertad de la población rusa exigen que se luche contra tal opresión. La larga historia, la secular historia de represión de los movimientos de las naciones opri-



midas, la propaganda sistemática de esta represión por parte de las ‘altas’ clases han creado enormes obstáculos a la causa de la libertad del mismo pueblo ruso en sus prejuicios, etc.”.

KLASEKO INDEPENDENTZIA

Lenin eta boltxebikeek zapalkuntza nazionalaren aurka borrokatzen zuten eta, aldi berean, langile klasearen batasun handienaren alde. Leninek behin eta berriro defendatzen zuen beharrezkoa zela nazio zapalduetako eta nazio zapaltzaileko langile klaseak batera borrokatzea. Bere esanetan, nazio ezberdinetako langileek ez zituzten helburu ezberdinak eta helburua langile klasearen borroka batasuna salbatzea eta burgesiaren influentzia guztiak desagitea zen.

Auzi nazionalarekiko Leninen eta marxismoaren posizioa langile klasean eta erdi-mailako kapa pobretuenengan pentsatuta eginda dago. Edozein zapalkuntza nazionalen aurka posizionatzen den bitartean, marxismoak ez die kontzesiorik egiten nazio zapalduko burgesiaren eskaera “praktikoei”. Burgesia honek, bere intereserako soi-

lik erabiltzen ditu herritarren sentimendu demokratikoak. Zapalkuntza nazionalaren aurka borrokatzeari bai, baina Leninen zioen bezala “por cuanto la burguesía de la nación oprimida está a favor de su nacionalismo burgués, nosotros estamos en contra. ¡Lucha contra los privilegios y violencias de la nación opresora y ninguna tolerancia con el afán de privilegios de la nación oprimida! (...) En el problema nacional, toda burguesía desea o privilegios para su nación o ventajas exclusivas para ésta; precisamente eso es lo que se llama ser ‘práctico’. El proletariado está en contra de toda clase de privilegios, en contra de todo exclusivismo. Exigirle ‘practicismo’ significa ir a remolque de la burguesía, caer en el oportunismo”.

Marx, Engels eta Leninek beti azpimarratu zuten langile klaseak burgesiarekiko erabateko independentzia politikoa izatearen beharra, bai nazio zapaltzaileko burgesiarekiko eta baita nazio zapalduko burgesiarekiko. Horrela azaldu zuen Leninek bere funtsezko testuetako batean (*El derecho de las naciones a la autodeterminación*): “Los intereses de la clase obrera y de su lucha contra el capi-

talismo exigen una completa solidaridad y la más estrecha unión de los obreros de todas las naciones, exigen que se rechace la política nacionalista de la burguesía de cualquier nación. Por ello sería apartarse de las tareas de la política proletaria y someter a los obreros a la política de la burguesía, tanto el que los socialdemócratas se pusieran a negar el derecho a la autodeterminación, es decir, el derecho de las naciones oprimidas a separarse, como el que se pusieran a apoyar todas las reivindicaciones nacionales de la burguesía de las naciones oprimidas. Al obrero asalariado tanto le da que su principal explotador sea la burguesía rusa más que la alógena, como la burguesía polaca más que la hebrea, etc. Al obrero asalariado que haya adquirido conciencia de los intereses de su clase le son indiferentes tanto los privilegios estatales de los capitalistas rusos como las promesas de los capitalistas polacos o ucranianos de instaurar el paraíso en la tierra cuando ellos gocen de privilegios estatales. El desarrollo del capitalismo prosigue y proseguirá, de uno u otro modo, tanto en un Estado heterogéneo unido como en Estados nacionales separados”.

AZAROAREN 9KO KONTSULTA

Bi baldintza jarri zituen hasieratik Artur Masek “kontsulta” deitzeko: PPK kontsultari babesa ematea eta ERCK Generalitatearen murrizketen politika onartzea. Autodeterminazio eskubideari buruzko erreferendumaz hitz egin arren, CiUk bere benetako aurpegia erakutsi du auzi honetan ere. Ez zuen arazorik izan Estatu espainiarraren debekua onartzeko, eta honen ordez balio loteslerik gabeko kontsulta bat deitzeko. Bere maniobretan beste kasu batzuetan baino urrutiago joanagatik ere, eskema betikoa izan da: inolako lotsarik gabe, herri kataluniarraren



sentimendu demokratikoekin jokatuz burgesia kataluniarraren klaseko interesak defendatzeko.

CiUren fartsa honek agerian uzten du bankari eta enpresari handi kataluniarrek ez dutela independentzia nahi. Akordio fiskala eta kontrol politikorako palanka gehiago bakarrik nahi dituzte, "Estatu mekanismoak" deiturikoak. Ez dute nahi Estatu espainiarrekin hausturarik merkatu espainiarrean eta europarrean dituzten negozioak galtzekoa arriskuagatik. Logikoki, oligarkia finantzarioak eta enpresarialak CiUri bere jokoa egiten utzi diote.

Azaroaren 9ko kontsultak balio loteslerik ez izan arren, bi milioi pertsona baino gehiago beren bozka ematera joan ziren Estatu aparatuari eta PPri muturreko bat emateko eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. 2.305.290 pertsonak hartu zuten parte kontsultan. Estatutaren erreformaren bozketan 2.570.478 pertsonak eman zuten botoa eta azkeneko hauteskunde europarretan adibidez 2.532.629 izan ziren. Datu hauek erakusten dute azaroaren 9ko kontsultako parte hartzea oso garrantzitsua izan zela. Eta garrantzia gehiago du jakinda, Ar-

tur Masen gobernuak Auzitegi Konstituzionalaren lehen debekua onartu ondoren, kontsulta hau balio loteslerik gabekoa zela.

Boto emaileen %80,67ak Bai-Bai bozkatu zuen, %10,67ak Bai-Ez eta %4,54ak Ez (Kontsultako galerak: "Catalunya estatu izatea nahi duzu?". Galdera honi baiezkua ematekotan, bigarren galdera bati erantzun behar zitzaion: "Catalunya estatu independente izatea nahi duzu?"). Eskuin espainiarrek, modu demagogiko batean, beren alde omen dagoen "gehiengo isilaz" hitz egin du, kontsultan parte hartu ez zutenak beren alde daudela argudiatzeko. Interpretazio hau erabat faltsua da. Catalunya azken hauteskunde europarretan PP ez zen iritsi %10era ere eta Ciudadansek %6,8 soilik eskuratu zuen. Oso gutxi da "gehiengo isila" izateko.

CiUren eskema bozketa honen eta bere emaitzen arrakasta erabiltzea izan da bere bidai orriarekin jarraitzeko. Aurrekontu antisozialak onartzen jarraitzea da plan honen oinarria. Orain, egingo liratekeen hauteskunde plebisitarioetan gehiengo lortu ezker "18 hilabetetan independentzia" lortzeko plana iragarri du. Artur

Mas eta CiUren beste fartsa bat gehiago besterik ez da.

BATASUNA BAI, BAINA EZKERRARENA PP ETA CIUREN AURKA

Zerk izan behar du ezkerraren lehentasuna Catalunyan aldaketa sakona lortzeko? CiUren manio-brak, traizioa eta ustelkeria agerian utzi Generalitateak botatzeko. Eskuina garaitu, bai kataluniarra bai espainiarra, honen makulua den sozialdemokraziarekin batera, hauteskundeetan eta kalean. Benetako programa ezkertiarra defendatuko duen ezkerreko Generalitatearen alde egin behar da borroka.

CiUk ERC eta CUPen babesa eta kolaborazioa nahi du bere politika erreakzionarioa mozorrotzeko. Horregatik, akats larria izan zen CUPeko David Fernandezek azaroaren 9an Artur Masi emandako besarkada. Mota honetako keinuak CiUk erabiltzen ditu bere buruari itxura aurrerakoia emateko. Eta berriz gogora dezagun: CiU ez dago autodeterminazio eskubidearen alde, sistema kapitalista eta estatu aparatuen makinaria errepresiboa mantentzearen alde dago. Zorionez, CUPek ezezkoa eman dio Artur Masen hauteskunde plebisitarioetan zerrenda bateratuan joateko proposamenari.

Noski beharrezkoa dela batasuna, baina ez CiUrekin, borroka egiten duen ezkerraren batasuna baizik; ez enpresarien eta langile kataluniarren batasuna, Catalunya langile, zapaldu eta gazte guztien batasuna baizik. Eta Catalunya langileen batasunari Euskal Herriko, Galizako eta Estatuko beste herrietako langileen batasuna gehitu behar zaio. Autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena ahultzetik urrun, eskubide hau benetako programa antikapitalista batekin lotuta eta langile klasearen mobilizazioan oina-

rrituta, eskubide demokratiko nazionalak indar handiagoa hartuko lukete borroka honetan milioika langile eta gazte inplikatur.

AUKERA HISTORIKOA

Inflexio puntu historikoa ikusten ari gara Catalunyan eta Estatu espainiarrean. CUPEk oso emaitza onak lortu zituen 2012ko Catalunya-ko hauteskundeetan, PP eta PSOEk muturreko galanta jaso zuten 2014ko hauteskunde europarretan, Ada Colaren Guanyem Barcelona eta Podemos gora egiten ari dira... Trantsizio garaitik kapitalista handiek erabili duten makinaria politikoaren krisia areagotzen ari da, eta garrantzitsuena dena, zabaltzen ari da aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoa beharrezkoa denaren ideia. Honen ondorioz, borroka politiko antolatuko parte hartzea zabaltzen ari da gazteen eta langileen artean.

Eskuina instituzioetatik botatzeaz gain, sozialdemokraziaren ezkerrera dauden erakundeek gehiengoa lortzeko aukera dago. Kolpe oso gogorra litzateke bankak eta enpresari handiek bultzatutako murrizketa politikentzat. Kolpe gogorra eskubide demokratikoen murrizketa politikarentzat eta nazionalismo espainiar atzerakoiarentzat. Gizartearen eraldaketa sozial sakon eta erradikala martxan jartzeko aukera irekiko litzateke krisi kapitalistaren, mu-

rrizketen eta zapalkuntza nazionalaren benetako zergatia erasotuz: bankaren eta enpresari handien diktadura. "Demokrazia" deitzen dioten arren, ekonomiako palanka garrantzitsuenen jabe diren aginduek baldintzatzen dute gizarte osoaren bizimodua.

Sektore batzuk bestelakorik bultzatu arren, argi eta garbi esan behar da gizarte espainiarra ez dela bloke atzerakoi bat. Ikaragarriko hanka sartzea da bereizketarik ez egitea Estatu espainiarrean ere badauden klase ezberdinetan. Azkeneko bost urteetan masa mobilizazio erraldoiak izan dira Estatu osoan, Trantsizio garaitik ikusten ez zen klase arteko borrokaren gorakada. Eta hasieran bakarrik gaude. Ezkerreko erakundeetako zuzendaritzek (Catalunyako, Euskal Herriko eta Galizako ezker independentistako erakundeak barne) egin dezaketen gauzarik onena autodeterminazio eskubidea gizartearen eraldaketa sozialistari lotzea da. Autodeterminazio eskubideak babes handiagoa izango du, bai Catalunyan bai Estatu espainiarrean, bankuen diktaduraren borrokari eta Estatu osoko langile klasearen borrokari lotuta badago. Ada Colauk erabakitze eskubidea, auzi nazionalan bezala gai sozialetara ere zabaltzea planteatu du eta ideia honek babes handia lortu du Catalunyako langileen eta gazteen artean. Hau da bidea! Eta ez us-

telduta dagoen CiUrekin akordioak eta aliantzak bilatzea! CiUren eskutik ez da ezer aurrerakorik etorriko langile klase kataluniarrarentzat!

CUP eta Podemosek (Sortuk ere Euskal Herrian) aukera bikaina dute programa sozialista defendatzeko eta datozen hauteskundeetan arrakasta izateko. Hori bai, ez dugu mekanismo instituzionaletan disolbatuko den ezkerreko behar, langileen eta gazteen antolakuntza bultzatuko duena baizik. Murrizketa sozialen aurka borrokatzen dutenen ahotsa entzungo duen ezkerreko behar dugu.

PROGRAMA SOZIALISTA

Marxistok nazio guztietako langile klasearen, gazteriaren eta herri zapalduaren batasuna defendatzen ditugu. Eta honekin batera Catalunyako, Euskal Herriko eta Galizako eskubide demokratikoak, autodeterminazio eskubidea barne, sozialismoaren aldeko borrokarekin uztartzearen beharra defendatzen dugu. Honela bakarrik izango da posible justizia soziala eta berdintasuna lortzea, mota guztietako zapalkuntzekin amaitzea, klase zapalkuntza eta nazio zapalkuntza barne. Gure alternatiba hau da: Catalunyako, Euskal Herriko, Galizako eta Iberiar penintsulako beste herrien Federazio Sozialista, Europako Herrien Federazio Sozialistaren markoan.



Antolatu zaitez Euskal Herria Sozialistan! Defendatu eta zabaldu gurekin programa sozialista!

Sozialismoaren alde borrokatzeko programa:

1. Banka eta monopolio handiak (elektrikak, telekomunikazioak, eraikuntza enpresak, garraioak...) desjabetu eta publiko egin behar dira langileen kontrolpe demokratikoan jarritz. Horrela bakarrik amaitu daiteke gaur egungo kapitalaren diktadurarekin. Ekoizteko baliabideak langileen eskuetan jarrita langabeziarekin bukatu ahal-litzaiteke.

2. Osasunaren, hezkuntzaren eta zerbitzu sozialen pribatizazioa-ri ez. Kalitatezko osasun eta hezkuntza publikoa, doakoa eta unibert-sala.

3. Etxe-kaleratzeen debekua. Bankuenak diren etxe hutsen des-jabetzea hauek etxebizitza publiko-en sarean sartzeko alokairu merke-ekin.

4. Ordezkaritza politikoko guztiek au-keragarriak eta edozein unetan ken-garriak izan behar dute. Zinegotzi, di-

putatu, parlamentari edo funtziona-rio politikoko batek ezin du kobratu lan-gile kualifikatu batek baino soldata altuagoa.

5. Txandakako lan administrati-boak. Administrazioaren eremu guz-tiek langileen kontrolpe demokrati-koan egon behar dute.

6. Erreparazioa eta justizia fran-kismoaren, Estatuaren gerra ziki-naren eta indar polizialen biktima-mentzat. Babesa oroimen histori-koa berreskuratzeko ekimenei.

7. Manifestatzeko, biltzeko eta antolatzeko eskubide osoa. Talde faxisten disoluzioa.

8. Komunikabideek ezin dute bo-tere ekonomikoaren eskuetan egon. Tebista, irratia eta prentsa idatzia mugimendu sozialen zerbitzura.

9. Preso politikoen amnistia.

10. Nazioen autodeterminazio eskubidea.

11. Nazio, klase eta genero za-palkuntzarik gabeko Europako He-rrien Federazio Sozialista.



Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun lezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!

JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun lezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista